



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO URRIAREN 9AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkateordea: Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/09/25EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2018ko irailaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- AGINAGAKO URDAIRA TXIKI BASERRIAREN (AGINAGA 63) LEHEN SOLAIRUKO FORJATUA BERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2015-0488

PATXI AZKONBIETA ETXEBERRIA jaunak, Aginagako Urdaira txiki baserriaren (Aginaga 63) lehen solairuko forjatua berritzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	38.280 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 500 €
	Fidantza (%120): 600 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko irailaren 28an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK



Usurbilgo Udala

AGINAGAKO URDAIRA TXIKI BASERRIA BIRGAITZEKO eta ALTXATZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA ETA DOKUMENTAZIO GEHIGARRIARI TXOSTENA

KOKAPENA: Urdaira baserria, Usurbil
ESKATZAILEA: Patxi Azkonobieta Etxeberria
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2015-0488
ESKAERA DATA: 2018ko abuztuak 20a
OINARRIZKO PROIEKTUAREN ERREDAKTATZAILEAK: Marina Lertxundi
Arkitektoa.

OINARRIZKO PROIEKTUAREN PEM: 38.280 euro.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA AURREKONTUA: 500euro

FIDANTZA (%120): 600 EURO

1. AURREKARIAK

- 2015eko azaroaren 24an Patxi Azkonobieta Etxeberria jaunak Aginagako Urdaira Baserria birgaitzeko oinarrizko Proiektua aurkeztu du Udalean dagokion obra baimena eskatuz.
- 2016ko otsailaren 24an udal arkitektoa txostena idatzi zion dokumentazio gehigarria eskatuz:
- 2016ko martxoaren 2an interesatuari eskaera jakinarazi zaio.
- 2016ko martxoaren 11ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2016ko apirilaren 22an udal arkitektoak AURKAKO txostena idatzi zion.
- 2016ko apirilaren 29an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2016ko maiatzaren 9an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2016ko urriaren 10ean aholkulari juridikoak txostena eman zuen, Urdaira Txiki baserrian egin nahi zen obraren inguruan.
- 2017ko apirilaren 6an interresatuak eskaera egin du, Urdaira Txiki baserriaren birgaitze obra baimenarean, aurrez aurkeztutako proiektuaren arabera.
- 2017ko abuztuaren 24an udal arkitektoaren txostena.
- 2018ko urtarrilaren 19an interesatuak eskaera egin du, Urdaira Txiki baserriaren birgaitze obra baimenarena, aurrez aurkeztutako proiektuaren arabera.
- 2018ko maiatzaren 14an udal arkitektoaren eta udal nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena.
- 2018ko maiatzaren 29an Tokiko Gobernu Batzarrak baserria birgaitu eta altxatzeko udal baimena ukatu zion
- 2018ko ekainaren 14an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du baimena eskatuz.
- 2018ko uztailaren 5ean interesatuaren idatzia jarduera proiektu eguneratua aurkezteko emandako hilabeteko epea luzatzeko eskatuz.
- 2018ko uztailaren 9an interesatuaren idatzia jarduera baimena berritzea ez dela beharrezkoa esanaz.
- 2018ko uztailaren 20an udal arkitektoaren txostena.
- 2018ko abuztuaren 20an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.

Erlazionatuak:



Usurbilgo Udala

HZ.04 / 2017 – 0364: Aginagako Urdaira haundi baserrian etxebizitza legeztatzea
ZENB. 2-5-3/SIG. 27-2: URDAIRA TXIKI BASERRIA ERABERRITU ETA ERANSKIN BAT
ERAIKI SAGARDOTEGIA JARTZEKO.
ZENBK 277/sig. 0191-04: urtea 1993: URDAIRA TXIKI BASERRIAN SAGARDOTEGIA
LEGEZTATZEA
Urtea. 1997: URDAIRA HAUNDI BASERRIA ERABERRITZEA

2. TXOSTENA

Marina Lertxundi Manterola andreak, Patxi Azkonobieta Etxeberriaren izenean, Aginagako Urdaira baserria birgaitzeko Oinarrizko Proiektuari gehitzeko dokumentazio gehigarria aurkeztu du eta obra baimena eskatu du berriz ere.

Orain aurkeztu duen dokumentazioa honakoa da: memoriaren eranskina eta aurreko oinarrizko proiektutik ordezkatu nahi diren 2 plano (5.1 eta 5.2 planoak hain zuzen ere). Guztiak teknikari gaituak (arkitektoak) izenpetuta eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsi gabe daude.

2018ko ekainaren 14an aurkeztutako dokumentazio gehigarriari buruz honakoa jaso zuen udal arkitektoak uztailaren 20ko bere txostenean:

“3. ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraiki, Urdaira Txiki baserriko forjatua ordezkatzeko proiektua ezin da onartu honako baldintzak bete artean:

- EKT-DB-SI-Dokumentuaren justifikazio berria aurkeztu beharko da, aurretik aipatutako puntuak zehaztuz.*

Bestalde, obra bukatu eta bertan jarduera ezarri aurretik, jarduera proiektu eguneratua aurkeztu beharko da eta udalaren onespena jaso beharko du.”

2018ko ekainaren 14ko dokumentazio gehigarriaren memorian, honela azaltzen da proposamenaren helburua:

“Esta última propuesta actúa únicamente en el interior del caserío Urdaira Txiki. Dado que la estructura interior de madera, y más concretamente el forjado de la planta primera, está en muy mal estado, se va a realizar un nuevo forjado de hormigón.

(...)

Los pilares y estructura de madera que sostienen el tejado se apoyarán en este forjado.

De este modo no se actúa en el volumen del caserío. En el exterior únicamente se ampliará el hueco de la puerta de acceso en planta baja en 50 cms para poder meter unos nuevos depósitos para sidra.”

Laburbilduz, proiektuaren helburua da Urdaira-txiki baserriaren



Usurbilgo Udala

lehen solairuko forjatua berritzea, baserriak duen bolumena errespetatuz. Bertan sagardotegi erabilerarako azalera handitu nahi da; behe solairuko oilategi erabilera kenduko da sagardotegiko upeltegia jartzeko.

Urdaira Txiki baserria Usurbilgo Aginaga auzoan kokatzen da, indarrean diren Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren arabera nekazaritza eta abeltzaintza babesteko lurzoru urbanizaezinean. Esan beharra dago, AASSTB-ren babestutako ondarearen ondasun higiezinaren katalogoan finkatzen denez, Urdaira Txiki baserriak Herri Mailako babesa duela, eta balizko eremu arkeologiko bezala ere izendatuta dago.

Eskaera, espediente eta aurkeztutako proiektua zein dokumentazioa aztertuta, honakoak esan daitezke:

- **SAGARDETEGI ERABILERA:** lurzoru urbanizaezineko erabilerak AASSTBeko 52. artikulua zehazten ditu; bertan ez da sagardotegi erabilera definitzen baina erabilera hau nekazaritzako jardueratzat har daiteke. **Beraz, sagardotegi erabilera onargarria da Urdaira-txiki baserrian.**
- **BASERRIA BERRITZEA:** Baserriei dagokienez hauen birgaitzea eta mantentzea aurreikusten da AASSTBeko 52. artikuluan. **Proiektuaren xedea Urdaira-txiki baserriaren forjatua ordezkatzeko da, baserriak gaur egun duen bolumena, eraikigarritasuna eta profila mantenduz. Beraz, proposamenak betetzen du AASSTB-aren baserriei buruz jasotzen den araudia.**
- **BABES ERREGIMENA:** AASSTB-ren babestutako ondarearen ondasun higiezinaren katalogoan finkatzen denez, Urdaira Txiki baserriak Herri Mailako babesa duela, eta balizko eremu arkeologiko bezala ere izendatuta dago. Ondorioz, edozein esku-hartzetan 70. artikuluan ezarritakoa bete beharko da (aplikagarriak diren gainontzekoekin batera). Balizko eremu arkeologiko bezala izendatuta egoteagatik honakoa bete beharko da: *“3. **Kategoria:** Adierazpen espediente baten gai izan diren Balizko Eremu Arkeologikoak barnean hartzen dituen kategoria honetan, egitera doan edozein eskuhartzeak orubearen baloreari buruzko eta proiektuaren eraginari buruzko ikerketa bat eduki beharko du, eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango da Proiektu Arkeologiko baten beharra eta hedadura zehaztuko duena, beharrezkoa balitz.”* **Beraz, exekuzio proiektuarekin batera, eta obrak hasi aurretik, GFAko Ondare sailaren baimena aurkeztu beharko da.**
- **EKT ETA GAINONTZeko ARAUDIA BETETZEA:** Oinarrizko proiektuek EKTko Suteen Araudiaren justifikazioa eduki behar dute barneratuta. **Eragindako obrari dagokion Suteen Araudiaren Justifikazioa aurkeztu da eta ontzat eman daiteke. Dena den, Jarduera Proiektu eguneratua aurkeztzen denean, jarduera osoari dagokion Suteen Araudiaren Justifikazioa aurkeztu beharko da. Bestalde, lehenengo solairuko etxebizitzatik zuzenean kanpora irteteko proposatzen den eskailerak gutxieneko altuera betetzen duela ziurtatu beharko da Exekuzio proiektuan.**



Usurbilgo Udala

- **JARDUERA BAIMENA:** Urdaira sagardotegiak 1993ko uztailaren 20an jaso zuen udalaren eskutik jardueraren irekiera baimena. Gaur egungo jarduerak baimena jaso zuenarekiko aldaketa nabarmenak jasan dituzenez, jarduera baimenaren eguneraketa izapidetu beharko da.

2018ko uztailaren 9an aurkeztutako idatzian gaur egungo egoera udalak baimenduta dagoela jasotzen da, eta hori ez da horrela jarduerari dagokionez. Lehen erabilera baimena jaso izan arren, udalak edozein momentutan eskatu dezake jarduera eguneratzea, batez ere aldaketak daudela baldin badaki. Beraz, **Jarduera proiektu eguneratua aurkeztu beharko da.**

- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 500 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (600 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua.
- **AZPIEGITURAK:** Instalazio eta azpiegiturei buruzko deskribapena eta planoak aurkeztu beharko dira exekuzio proiektuan.
- **EXEKUZIO PROIEKTUA:** Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, aurretik aipatutakoak jasotzen dituen; Exekuzio Proiektu horrek Udalaren onespina jaso beharko du.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

3. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, **Urdaira Txiki baserriko forjatua ordezkatzeko proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzekotan:**

- Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, aurretik aipatutakoak barneratzen dituen. Besteak beste, lehenengo solairuko etxebizitzatik zuzenean kanpora irteteko proposatzen den eskailerak gutxienezko altuera betetzen duela ziurtatu beharko da Exekuzio proiektuan; eta Instalazio eta azpiegiturei buruzko deskribapena eta planoak ere aurkeztu beharko dira.
- Exekuzio proiektuarekin batera, eta obrak hasi aurretik, **GFAko Ondare**



Usurbilgo Udala

sailaren baimena aurkeztu beharko da.

- **Hondakinen kudeaketako araudiaren arabera aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik (600 €).**
- **Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.**
- **Bestalde, obra bukatu eta bertan jarduera ezarri aurretik, jarduera proiektu eguneratua aurkeztu beharko da eta udalaren onespena jaso beharko du.**

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko irailaren 28an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga


Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: PATXI AZKONBIETA ETXEBERRIA jaunari, Aginagako Urdaira txiki baserriaren (Aginaga 63) lehen solairuko forjatua berritzeko udal baimena udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**

1. Obrak hasi aurretik **dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da, udal arkitektoak aipatutako aldaketak barneratuz. Exekuzio Proiektu horrek Udalaren onespena jaso beharko du. Besteak beste, Exekuzio Proiektua honakoak barneratu beharko ditu: lehenengo solairuko etxebizitzatik zuzenean kanpora irteteko proposatzen den eskailerak gutxieneko altuera betetzen duela ziurtatu beharko da; eta instalazio eta azpiegiturei buruzko deskribapena eta planoak ere aurkeztu beharko dira.
2. Proiektu arkeologikoa gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak emandako baimena aurkeztuko da.



Usurbilgo Udala

3. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 400 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (600 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

600 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2015-0488*” jarriaz kontzeptuan.

- Marina Lertxundi Manterola arkitektoak 2018ko abuztuan idatzitako Proiektuaren eranskinari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
 - Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
 - Bestalde, obra bukatu eta bertan jarduera ezarri aurretik, jarduera eguneratua aurkeztu beharko da eta udalaren onespena jaso beharko du. Jarduera Proiektuan, jarduera osoari dagokion Suteen Araudiaren justifikazioa aurkeztu beharko da.
 - OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
 - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
- Obralaren Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.



Usurbilgo Udala

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoaren aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm.akoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. artikuluan dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- PUELABERRI BASERRIKO OBRAREN LEGEZTATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0450

JUAN IGNACIO ASTIAZARAN LASA jaunak, Puelaberri baserriko obraren legeztatze oinarrizko proiektua aurkeztu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	107.500,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.000 €
	Fidantza (%120): 2.400 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko irailaren 28an honako txostena eman du:



Usurbilgo Udala

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HANDIAK

PUELABERRI BASERRIKO OBRAK LEGEZTATZEKO OINARRIZKO
PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Puelaberi baserria. Usurbil
ESKAERA DATA: 2018ko irailak 4a
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2017-0450
PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 170.500,00 euro

1. AURREKARIAK

- 2017ko irailaren 4an Juan Ignacio Astiazaran Lasak Puelaberi baserriko obrak legeztatze oinarrizko proiektua aurkeztu du.
- 2018ko irailaren 10ean udal arkitektoaren txostena.
- 2018ko irailaren 24an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2018ko irailaren 27an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- Erlazionatutako espedienteak:

1997 - Puela Berri baserria berritzea

- 1997ko ekainaren 24an Juan I. Astiazaran jaunak udal baimena eskatu zuen, Puela Berri baserria eraberritzeko eta baserriko lurretan ganadua eta oiloentzat borda eraikitzeko.
- 1997ko abuztuaren 4an udal arkitektoak ALDEKO txostena idatzi zion Puela Berri baserriaren eraberritzeari (baldintzekin) eta AURKAKOA ganadua eta oiloentzako bordari.
- 1997ko irailaren 9an Gobernu Batzordeak batzarraldian Puela Berri baserria eraberritzeko eta Nekazal erabilera izango duen Borda eraikitzeko udal baimena eman zuen, baldintzekin (ikus espedienteak)
- Orainartean ez da Exekuzio Proiekturik aurkeztu, Udalarri lagapenik egin, zuinketarik egin, Obra Zuzendaritzaren enkarguaren kopiarik aurkeztu eta orohar ez dira udal baimenean ezarritako baldintzak bete direla egiaztagiririk aurkeztu udalean.

HZ.13/2012-0537. Puela Berri baserriko obrak legeztatu eta eraberritzeko lanak bukatzeko aukeraz galdera urbanistikoa

- 2012ko urriaren 30ean Eurne Aizpurua andereak hirigintza kontsulta egin zuen, Puela Berri baserriaren eraberritze eta legeztatzearen inguruan.
- 2013ko apirilaren 16an udal arkitektoaren txostena, besteak beste, honakoak esanaz: *“dagokion legeztatze proiektua aurkeztu beharko da udalean,*



Usurbilgo Udala

arkitektoak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia. Legeztatze proiektuak bete eta justifikatu beharko ditu zehatz eta banaka Usurbilgo Arau Subsidiarioen 53. eta 54. artikulua ezarritakoak (eta orohar artikulua guztiak) eta baita legeztatze momentuan indarrean den aplikaziozko araudia ere (CTE, RITE, ... e.a.). Zentzu horretan, legeztapen proiektuak azterketa xehekatua egingo du egungo eraikinak baldintzen inguruan. Legeztatzerik ez dagoen guztia, baimenik gabe eraikitakoa, erretiratu/eratsi beharko da.”

- 2013ko maiatzaren 2an Alkatzaren 2013/0445 dekretua, galdera urbanistikoa erantzunez.
- 2013ko ekainaren 13an Juan Ignacio Astiazaran Lasaren idatzia, obrak legeztatze emandako hilabeteko epeari erantzunez.
- 2013ko ekainaren 17an Udal arkitektoaren txostena.

2. TXOSTENA

Juan Ignacio Astiazaran Lasak Puelaberri baserriko obrak legeztatze oinarriko proiektuari erantzeko dokumentazio osagarria aurkeztu du (irailaren 24an eta 27an). Irailaren 24an aurkeztutako dokumentuak hauek dira: eskaera orria, txostena eta eranskinak (besteak beste, 5. plano zuzendua eta Hondakinen Kudeaketaren Azterlana). Irailaren 27an dokumentazio berria aurkeztu da: eskaera orria, akats zuzenketa txostena eta 5. eta 7. plano zuzenduak. Guztiak arkitektoak izenpetuta eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe

Aurrekarietan esan bezala 1997an Puelaberri baserria eraberritzeko udal baimena eman zen baldintzatua. Baina hainbat baldintza ez dira bete: ez da Exekuzio Proiekturik aurkeztu eta ez da gas tankearen proiektua aurkeztu eta IGOKA espedientea izapidetu, besteak beste.

Bestalde, Puelaberri baserriaren eraberritze eta legeztatzearen inguruan 2012an egindako hirigintza Kontsultari honakoa erantzun zion, besteak beste, udal arkitektoak 2013ko apirilaren 16an: *“dagokion legeztatze proiektua aurkeztu beharko da udalean, arkitektoak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia. Legeztatze proiektuak bete eta justifikatu beharko ditu zehatz eta banaka Usurbilgo Arau Subsidiarioen 53. eta 54. artikulua ezarritakoak (eta orohar artikulua guztiak) eta baita legeztatze momentuan indarrean den aplikaziozko araudia ere (CTE, RITE, ... e.a.). Zentzu horretan, legeztapen proiektuak azterketa xehekatua egingo du egungo eraikinak baldintzen inguruan. Legeztatzerik ez dagoen guztia, baimenik gabe eraikitakoa, erretiratu/eratsi beharko da.”*

2017ko irailaren 4an aurkeztutako Legeztapen Proiektuaren helburua honakoa da:

“El objeto del presente proyecto básico es la definición de las OBRAS COMPLEMENTARIAS NECESARIAS PARA LA LEGALIZACIÓN del edificio Caserío PUELA BERRI, actualmente construido (estructura y envolvente, fachadas y cubierta) a falta de ejecución de la mayoría de las distribuciones, instalaciones y acabados interiores”.

(...)

“el presente proyecto se redacta como “continuación” en base a dicho proyecto



Usurbilgo Udala

ejecutivo definiendo aquellas obras pendientes de realizar con objeto de la legalización para la obtención de la correspondiente primera utilización del Caserío.”

Beraz, txosten honen helburua aurkeztutako legeztapen proiektuak eta orain aurkeztutako dokumentazio osagarriak 1997an udal baimena jaso zuen proiektuko baldintzak eta indarrean dagoen araudia betetzen duen aztertzea izango da.

Legeztapen Proiektu horri buruz, behean izenpetzen duen teknikariak, 2018ko irailaren 10ean, idatzitako txostenean honakoa jasotzen zen laburbilduz:

“3. ONDORIOAK

Puelaberri baserriko obrak legeztatzeko Oinarrizko Proiektuari KONTRAKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzen direla ziurtatu artean:

- *Legeztatu nahi den proiektuak ezingo ditu 1997an baimendutako proiektuko guztizko azalera erabilgarria eta azalera eraikia gainditu. Beraz, legeztapen proiektua egokitu egin beharko da, ezingo dira gainditu 294,67 m²ko azalera erabilgarria eta 372 m²-ko azalera eraikia.*
- *Hondakinen kudeaketako azterlana aurkeztu beharko da.*
- *Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du proiektuak.”*

Puelaberri baserria, Usurbilgo Urdaiaga auzoan dago, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren arabera *Atsedean Eremuen Berezi babesteko lurzoru ez-urbanizagarrian*. Beraz, lurzoru ez-urbanizagarriko araudia bete beharko da.

Dokumentazioa aztertu ostean, honakoa esan daiteke:

- **JATORRIZKO BASERRIA, BAIMENDUTAKOA ETA LEGEZTATU NAHI DENAREN ARTEKO KONPARAKETA:** Aurrekarietan esan bezala 1997an Puelaberri baserria eraberritzeko baimena eman zen. Beraz, jarraian jatorrizko baserriaren, baimendutakoaren eta legeztatu nahi denaren parametroen konparaketa egingo da:

		JATORRIZKO BASERRIA	BAIMENA JASO ZUEN PROIEKTUA	LEGEZTAPEN PROIEKTUA	BETETZEN DU / EZ DU BETETZEN
OINEKO OKUPAZIOA		168 m ²	168 m ²	170,81 m ²	la betetzen du (+2,81 m ²)
ERDISOTOA / SOTOA	Azalera erabilgarria	ez	120,93 m ²	44,50 m ²	
	Azalera eraikia	ez	168,00	60,86 m ²	
BEHE SOLAIRUA	Azalera erabilgarria	?	125,14 m ²	132,60 m ²	
	Azalera eraikia	168 m ²	142,00 m ²	170,81 m ²	
1GO	Azalera	?	48,60 m ²	108,33 m ²	



Usurbilgo Udala

SOLAIRUA	erabilgarria				
	Azalera eraikia	94,88 m2 (inguru)	62,00 m2	140,00 m2	
GUZTIRA	Azalera erabilgarria	?	294,67 m2	285,43 m2	Betetzen du
	Azalera eraikia	262,88 m2 (inguru)	372,00 m2	371,67 m2	Betetzen du
ALTUERAK	ALERO AZPIRA	3,75 m eta 2,02 m	6,4 m eta 3,85 m	6,25 m eta 4,10 m	la betetzen du (+0,15m eta 0,25m)
	GAILURRERA	5,40 m	9,34 m	8,20 m	Betetzen du
TEILATUAREN MALDA		%35	%26	%35	Onargarria izan liteke


Taula honetan garbi ikusten da baimendutako baserriak jatorrizkoaren hainbat parametro ez dituela betetzen. Baina 1997an proiektu horrek baimena jaso zuenez, Legeztatze proiektuan jasotako proposamena baimendutakoarekin alderatu da, honen parametroak betetzen dituen ikusteko. Hala honakoa ondorioztatzen da:

- Oineko okupazioa ia betetzen du (2,81 m2 gehiago ditu).
- Guztizko azalera erabilgarria betetzen du.
- Guztizko azalera eraikia betetzen du.
- Baimendutako alero azpiko altuera ia betetzen du (0,15m eta 0,25m gehiago ditu).
- Gailurraren altuera betetzen du.
- Teilatuaren malda ez da baimendutako proiektuko berdina (%26) baina jatorrizko baserriaren berdina da eta AASSTB betetzen du (gehienez %35)

Beraz, dauden gehikuntzak oso txikiak direnez onargarriak izan litezke.

- **ERAIKUNTZA BALDINTZAK BETETZEA:** Oro har, betetzen dira AASSTBeko 53. artikuluan jasotzen diren lurzoru urbanizaezineko eraikinek bete behar dituzten baldintzak.
- **ETXEBIZITZA KOPURUA:** batetik, memorian esaten den moduan 1997an baimendutako proiektuan nabarmentzen da bi etxebizitza barneratzen zirela proiektuan (planoetan bi etxebizitza daudela ikusten da); bestetik, baserriei dagokienez hauen birgaitzea eta mantentzea eta azpizatiketa aurreikusten da AASSTBeko 52. artikuluan:

"Lurzoru ez urbanizagarrian dauden baserrien birgaitzea eta beraien balioa agerian jartzea bermatzeko helburuarekin, hauen mantentze eta finkatzeari begira, beraien azpizatiketa, gehienez ere bi etxebizitza eraikin bakoitzeko, onartzen duten birgaitze edo eraberritzeak baimendu ahal izango dira, beti ere baserriak Jabego Erregistroan inskribatuta badaude eta ordenazioz kanpo deklaratuak ez badaude." **Beraz, bi etxebizitza egokitzea baimengarria da.**



Usurbilgo Udala

- **BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA:** Indarrean diren Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 55. artikuluan finkatu bezala, bizigarritasun baldintzak bete behar dira; **exekuzio proiektuan bizigarritasun baldintzen justifikazioa aurkeztu da.**
- **EKT ETA BESTEAK:** Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikaziozko diren gainontzeko araudiak, hala nola, Tentsio Bajuko Instalazioen Erreglamendua eta Irisgarritasun Araudiak (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua).
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2000 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2400 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua.
- **AZPIEGITURAK:** Zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.
- **EXEKUZIO PROIEKTUA:** Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onesitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da; Exekuzio Proiektu horrek Udalaren onespena jaso beharko du.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: 1 urte.
- **ARAU HAUSTEA ETA ISUN ESPEDIENTEA:** Aurkeztu den dokumentazioaren arabera, esan liteke, 1997an emandako Puela Berri baserriaren eraberritze baimenak jasotzen ez zituen hainbat obra egikaritu direla. Baimenik gabeko obrak egin izanak arau-haustea dakar 2/2006 Lurzoruaren Legearen 221. artikulua arabera eta horrekin batera, lurzoru ez-urbanizagarrian arau-haustea izanagatik isun espedientea irekitzea dagokio legeari jarraituz, Udalari jakinarazten zaiona.

3. ONDORIOAK

Puelaberri baserriko obrak legeztatzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzen direla ziurtatu artean:



Usurbilgo Udala

- 2018ko irailaren 27an aurkeztutako eranskineko planoen arabera egin beharko da obra.
- Azpiegiturei dagokienez, zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.
- Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratu beharko da bertan.
- Hondakinen kudeaketako araudiaren arabera aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik (2400 €).
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du proiektuak.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko irailaren 28a

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko urriaren 2an ondoko txostena eman du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKAERA: Eraikuntza berriarentzat udal zerbitzuei lotuneen txostena

ESKATZAILEA: Hirigintza saila

KOKAPENA: Urdaiaga 10 (Puela berri baserria)

ESP. ZENB: HZ.04/2017-0450

TXOSTENA


Urdaiaga 10eko Puelaberri baserri berriaren, Udal zerbitzuetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du hirigintza sailak.

Ur zikinak: ez dago ur zikinen sarera lotunerik.

Euri urak: ez da euri uren sarera lotunerik.

Ur-hartunea: baserriak ez du ur edangarriaren sareko lotunerik.

2018ko urriaren 2an



Usurbilgo Udala

Zerbitzu eta Mantenua saileko burua

Felix Aizpurua Arzallus

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA


LEHENDABIZI: JUAN IGNACIO ASTIAZARAN LASA jaunari, Puelaberri baserriko obrak legeztatzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**

1. Obrak hasi aurretik **dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da eta bertan bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratu beharko da.
2. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.000 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.400 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

2.400 €-ko fidantza Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2017-0450*” jarriaz kontzeptuan.

- Katrin Marrero Vizcaino arkitektoak 2017ko martxoan idatzitako Proiektuari eta 2018ko irailaren 27an aurkeztutako eranskineko planoen arabera egin beharko da obra, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
- Ur edangarriaren hartunea ezarriko da. Udal ur saretik Puelaberri baserriko ur-horniketa burutzeko beharrezko azpiegitura obra guztiak interesatuaren kontura izango dira.
- Uren isurketa indarrean dagoen arazketa Lege eta Araudiari lotetsiko zaio.



Usurbilgo Udala

- Fosa septika bat ezarriko da, ur zikinak isuri aurretik bertan jasoz. Fosa Septikoari dagokionean, etxe horretako bizilagunen eta beharren proportzioan eraikiko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralaren Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

4.- ZUBIETAKO LIZARRAGA BASERRIKO (ZUBIETA 8) ETXEBIZITZA BAT BIRGAITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0397

JONATAN PLAZA BLANCO jaunak, Zubietako Lizarraga baserriko (Zubieta 8) etxebizitza bat birgaitzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	129.911,26 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 393,25 €
	Fidantza (%120): 471,90 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko irailaren 17an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
ZUBIETAKO LIZARRAGA BASERRIKO ETXEBIZITZA BAT BIRGAITZEKO
OINARRIZKO PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Lizarraga baserria, Zubieta 8, Usurbil
ESKATZAILEA: Jonatan Plaza Blanco
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2018-397
PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 129.911,26 euro (PEM)
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 393,25 euro. → Fidantza (%120): 471,90 euro

1. TXOSTENA

Jonatan Plaza Blancok obra baimena eskatu du, Usurbilgo Zubieta auzoko Lizarraga baserriko etxebizitzetako bat birgaitzeko (7891130 erreferentzia katastrala duen eskubiko etxebizitza). Horretarako aurkeztu dituenak dira, eskaera orriarekin batean, Oinarrizko Proiektua, eskrituren kopia eta teknikari gaituen ziurtagiria. Proiektuak barneratzen ditu: memoria, eranskinak, aurrekontua eta planoak. Guztiak arkitektoek izenpetuak eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe.



Usurbilgo Udala

Lizarraga baserria, Usurbilgo Zubieta auzoan dago, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren arabera *Zubietako Ibarreko Babeseko lurzoru ez-urbanizagarrian*. Esan beharra dago, AASSTB-ren babestutako ondarearen ondasun higiezinaren katalogoan finkatzen denez, Lizarraga baserriak Herri Mailako babesa duela, eta balizko eremu arkeologiko bezala ere izendatuta dagoela.

Aurkeztu den proiektuaren helburua baserriko harrizko hormak eta egoera onean dauden egurrezko egituraren zatiak mantenduz eraikina hustu eta etxebizitza berri bat antolatzea da.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- **AASSTB BETETZEA ETA BABES ERREGIMENA:** AASSTB-ren babestutako ondarearen ondasun higiezinaren katalogoan finkatzen denez, Lizarraga baserriak Herri Mailako babesa du, eta balizko eremu arkeologiko bezala ere izendatuta dago. Ondorioz, edozein esku-hartzetan 70. artikuluan ezarritakoa bete beharko da (aplikagarriak diren gainontzekoekin batera). 70. artikuluan finkatutakoari jarraituz, esku-hartze erregimena *Erreforma*-koa da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 317/2002 dekretuaren arabera. Bertan, honela definitzen da Erreforma edo Berriztatzea:

“Berriztatzea

Berriztatzea eraikuntzako esku-hartze bat da, **sendotzeko esku-hartzearen kasuan adierazitakoez gain**, honako helburuetakoren bat edo guztiak dituen:

- a) Barruko espazioen banaketa eta antolamendua aldatzea, aldaketak instalazio teknologikoak eta higieziaren eta osasunaren ingurukoak barne hartzean egindako egokitzapenak baino harantzago doazenean.
- b) Ondorengo egitura-elementuen kokapena, kota, forma eta dimentsioak aldatzea:
 - Barruko hormak eta gangak.
 - Pilareak, forjatuak eta gangak.
 - Eskailerak.
 - Estalkia
- c) Kanpoko eta barruko fatxadak aldatzea, balio estilistiko berezia duten elementuei eutsiz. Betiere osakerak duen batasunari eutsi beharko zaio.”

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 317/2002 Dekretuaren I. Eranskinean honela definitzen da *Sendotzea* (Consolidación) esku-hartzea:

“Sendotzea

1. Sendotzea eraikuntzako esku-hartze bat da, honako helburuetara bideratutakoa: **zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen kasuan adierazitako helburuetara**, batetik, eta eraikuntzaren egonkortasuna hobetzera, bestetik. Hori egitura-elementuak berriztatuz eta ordezkatuz egingo da.
2. Sendotzeko esku-hartze batean barne hartutako obrak honakoak izango dira, zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen kasuan adierazitakoez gain: egoera txarrean dauden egitura-elementuak ordezkatzea, nahiz eta berriak beste material batekoak izan, eta egonkortasuna eta segurtasuna areagotzea ondorio izango duten egituraren eta zimentazioaren osaketaren inguruko gainerako lanak.
3. Egitura-elementuak ordezkatzeko obrek forjatuen kotak aldatu ahal izango dituzte pixka bat, erlaitzaren eta leihoen kotei bere horretan eutsiz.



Usurbilgo Udala

4. Egitura sendotzeko obrak egin ondoren, eraikinaren gainerako elementuak berregin beharko dira jatorrian zituzten formaren eta banaketaren inguruko ezaugarrien arabera aipatutako obra horiek berriz egiteko eraistea eskatzen duten kasuetan."

Era berean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 317/2002 Dekretuaren I. Eranskinean honela definitzen da *Zaintzea eta apaintzea* esku-hartzea:

Zaintzea eta apaintzea

1. Zaintzea eta apaintzea eraikuntzako esku-hartzeetako bat da, honakoak lortzea helburu duena: dauden eraikuntzetako akabera-elementuak konpontzea, berriztatzea edo ordezkatzeta, eraikuntza horietako gutxieneko bizigarritasun-baldintzei (gutxieneko higiene-zerbitzuen, bainu, komun eta sukaldeko gasen aireztapenaren eta bizitzeko egoki diren gainerako gelen ingurukoei) eustea edo horiek eskaintzea, uraren hornidura, elektrizitate, berogailu eta saneamenduari dagokienez indarrean dagoen legeriaren araberrako instalazio egokiak jartzea, geletako argitasuna eta aireztapena hobetzea, beharrezko izanez gero fatxada-baoak konponduz edo berriak eginez, eta eraikinak narriatzea saihesteko gutxieneko baldintzak eta Dekretu honen II. eta III. eranskinetan zehazten diren **gutxieneko bizigarritasun-baldintzak izateko obra txikiak**.
2. (...)
3. Honakoak izan daitezke zaintzeko eta apaintzeko esku-hartze batean barne hartutako obrak:
 - a) **Fatxaden itxura aldatzen duten obra txikiak**, baoetan eragina dutenak edo bao berriak irekitzea eragiten dutenak, horiek lehendik dagoen azalera erabilgarriaren banaketa eta fatxaden osaera orokorra aldatzen ez dituztenak.
(...)

Dekretuaren arabera, proiektuak proposatutako esku-hartzeak, oro har, onargarriak diren arren, fatxadari dagokionez, esan beharra dago ez dela onargarria balkoi berria gauzatzeta, ez baita horrelako jardunik jasotzen dekretuan aipatutako bizigarritasun baldintzen artean. Gainera, dekretu beraren arabera, aztergai dugun eraikinean gauzatu daitezkeen esku-hartzeak handitzerik gabekoak izango dira. Hortaz, proposatutako balkoia ezabatzearekin batera, horretara iristeko hutsuneen azalera berraztertu eta justifikatu beharko dira, bizigarritasun baldintzak eta dekretuak ezarritako gainerakoak betetzeari begira. Eta baita Indarrean diren Usurbilgo Arau Subisidiarioen Testu Bateraginaren 55. artikuluan finkatutakoari jarraituz ere. Ondorioz, exekuzio proiektuan aipatutako aldaketa eta bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratu beharko dira.

Bestalde, balizko eremu arkeologiko bezala izendatuta egoteagatik honakoa bete behar da 70. artikuluan arabera: "3. *Kategoria: Adierazpen espediente baten gai izan diren Balizko Eremu Arkeologikoak barnean hartzen dituen kategoria honetan, egitera doan edozein eskuhartzeak orubearen baloreari buruzko eta proiektuaren eraginari buruzko ikerketa bat eduki beharko du, eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango da Proiektu Arkeologiko baten beharra eta hedadura zehaztuko duena, beharrezkoa balitz.*" **GFako Ondare sailaren baimena aurkeztu da. Bertan zehaztutako baldintzak bete beharko dira.**

- **EKT ETA BESTEAK:** Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta



Usurbilgo Udala

aplikaziozko diren gainontzeko araudiak, hala nola, Tentsio Bajuko Instalazioen Erreglamendua eta Irisgarritasun Araudiak (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua).

- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 393,25 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (471,70 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua.
- **AZPIEGITURAK:** Zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.
- **EXEKUZIO PROIEKTUA:** Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, aurretik aipatutako aldaketak jasotzen dituena; Exekuzio Proiektu horrek Udalaren onespena jaso beharko du.
- **ZUINKETA AKTA:** udal aparejadorearekin teiltuaren altueraren zuinketa akta izenpetu beharko da.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

3. ONDORIOAK

Lizarraga baserriko eskubiko etxebizitza birgaitzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzekotan:

- GFAko Ondare sailaren baimenean zehaztutako baldintzak bete beharko dira.
- Azpiegiturei dagokienez, zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.
- Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, aurretik aipatutako aldaketak barneratzen dituena. Alboko altzaerako balkoia ezabatu egin beharko da eta bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratu beharko da bertan.
- Hondakinen kudeaketako araudiaren arabera aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik (471,70 €).



Usurbilgo Udala

- Udal aparejadorearekin teiltuaren altueraren zuinketa akta izenpetu beharko da.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko irailaren 17an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko urriaren 2an ondoko txostena eman du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKAERA: Eraikuntza berriarentzat udal zerbitzuei lotuneen txostena
ESKATZAILEA: Hirigintza saila
KOKAPENA: Zubieta sakabanatuak 8 (Lizarraga baserria)
ESP. ZENB: HZ.04/2018-0397

TXOSTENA

Zubieta sakabanatuak 8ko Lizarraga baserriaren udal zerbitzuetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du hirigintza sailak.

Ur zikinak: aurkeztutako oinarritzko proiektuan ez dute aurkezten ur zikinen azpiegituraren dokumentazio grafikorik.

Euri urak: aurkeztutako oinarritzko proiektuan ez dute aurkezten ur zikinen azpiegituraren dokumentazio grafikorik.

Ur-hartunea: aurkeztutako oinarritzko proiektuan ez dute aurkezten ur-hartunearen dokumentazio grafikorik.

Udaleko ur zikinen eta euri uren saneamenduetara lotuneak eta ur hartuneak baimendu baino lehen, hurrengoak aurkeztuko dira:

- Eraikiko diren ur-zikinen, euri-uren eta ur-edangarriaren hartuneko lotuneko puntuak adierazten duten informazioa (Planoak, xehetasunak, memoria...).



Usurbilgo Udala

- Ur-edangarriaren kontagailuen kokapena eta informazioa (Planoak, xehetasunak, memoria...).

2018ko urriaren 2an

Zerbitzu eta Mantenua saileko burua

Felix Aizpurua Arzallus

KONTROL ARKEOLOGIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak, 2018ko ekainaren 7an helarazi du Lizarraga baserrian proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenaren jakinarazpena. Hitzez hitz honela dio:

Departamentu honetako, Kultura Zuzendari Nagusiak ondoko EBAZPENA eman du gaurko datarekin:

2018-05-31

GAIA: kontrol arkeologikoa

LEKUA: Lizarraga baserria, Zubieta

HERRIA: Usurbil

INTERESDUNA: ARKEOLAN FUNDAZIOA

ZUZENDARIA: Zohartze Galán Zumeta

ERREGISTRO ZK: 2655 **ESPEDIENTE ZK:** 019/20

Arkeolan Fundazioa-k idatzi bat aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentu honetako sarrera erregistroan. Idatzi horretan baimena eskatzen da goian aipatzen den proiektu arkeologikoa gauzatzeko Zohartze Galán Zumeta arkeologoaren zuzendaritzapean.

Hori guztia ikusirik dagokion txostena eman dute Departamentu honetako zerbitzu teknikoek, eta bertan diote ez dutela eragozpenik ikusten aurkeztutako proiektu arkeologikoa ontzat emateko.

Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, eta dituen eskumenak erabiliz, Kultura zuzendari nagusi honek, honako hau,

EBATZI DU

Lehena.- Baimena ematea Zohartze Galán Zumeta-ri goian aipaturiko proiektu arkeologikoa gauzatzeko. Hala izango da Euskal Kultura Ondareko 7/1990 Legearen 45.1 artikulua ezartzen duena betetzeko, zuzendaritza nagusi honen esku dagoen arloan, eta beti ere, jarraian aipatzen diren honako baldintza hauek betetzen badira:



Usurbilgo Udala

- Lanen hasiera GFA-ko Departamentu honi jakinarazi beharko zaio astebeteko aurrerapenarekin gutxienez.
- Baimen honi dagokion txostena paperean eta formatu informatikoan (Word, Pdf) aurkeztu beharko da bere garaian.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen du berak egindako oroitidazki zientifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Arkeologia Artxihoan egon dadin baita ere Foru Aldundiaren Web ornan eskegita edonork kontsulta ahal dezan.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen dio GFA-ri Kultura Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu dion materiala zabalkunde laneratako erabili ahal dezan. Nolanahi ere, argazkien egilea edo jatorria.

Bigarrena.- Arkeologi zundaketaren ondorioz aparteko aztarna arkeologikorik azalduz gero, berehala berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu honi, bidezko izanez gero, beharrezkoak suertatzen diren neurriak hartu ditzan.

Hirugarrena.- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabekoa da, eta ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, ezta bere edukia aurreikusten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokete interesatuek Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO apean. Dena dela, egoki derirotzen beste edozein aurkez daiteke.

Jaldn dezazun eta bidezko ondorioetarako igortzen dizut.

Donostia, 2018ko maiatzaren 31a
IDAZKARI TEKNIKOA
Ana Urkola Aranburu

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak



Usurbilgo Udala

honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JONATAN PLAZA BLANCO jaunak, Zubietako Lizarraga baserriko (Zubieta 8) etxebizitza bat birgaitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**

1. Obrak hasi aurretik **dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da, udal arkitektoak zein udal aparejadoreak aipatutakoak barneratuz.
 - Alboko altzaerako balkoia ezabatu egin beharko da eta bertan bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratu beharko da.
 - Eraikiko diren ur-zikinen, euri-uren eta ur-edangarriaren hartuneko lotuneko puntuak adierazten duten informazioa (Planoak, xehetasunak, memoria...).
 - Ur-edangarriaren kontagailuen kokapena eta informazioa (Planoak, xehetasunak, memoria...).
2. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 393,25 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (471,90 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

471,90 €-ko fidantza Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2018-0397*" jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko, udal aparejadorearekin teiltuaren altueraren ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- ZEHARK STUDIO taldeko Asier Muñagorri Garmendia, Aitziber Muñoz Herrero eta Ander P. Beristain Bernedo arkitektoek 2018ko ekainean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean



Usurbilgo Udala

sartu gabe.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenean zehaztutako baldintzak bete beharko dira.
- Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionez, udal aparejadoreak ezarritako baldintzak beteko dira.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralaren Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datoze adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.



Usurbilgo Udala

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- KALEZARKO EGILUZEAUNDI BASERRIA (KALEZAR 78) ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0117

JON ARGOTE BENGOETXEA jaunak, Kalezarko Egiluzeaurdi baserria (Kalezar 78) eraberritzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	180.000,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.000 €
	Fidantza (%120): 1.200 €.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andreak, 2018ko irailaren 13an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
KALEZARKO EGILUZEAUNDI BASERRIA ERABERRITZEKO PROIEKTUARI
TXOSTENA

KOKAPENA: Egiluzeaurdi baserria, Kalezar 78, Usurbil
ESKATZAILEA: Jon Argote Bengoetxea
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2018-0117
PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 180.000,00 euro (PEM)
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.000 euro → Fidantza (%120): 1.200 euro



Usurbilgo Udala

1. AURREKARIAK

- 2018ko martxoaren 6an Jon Argote Bengoetxeak obra baimena eskatu du Kalezarko Egiluzeaundi baserria birgaitzeko.
- 2018ko ekainaren 20an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du (Udalak eskatuta).
- 2018ko abuztuaren 7an interesatuak Oinarrizko Proiektu bateratu berria aurkeztu du.
- 2018ko irailaren 12an interesatuak Hondakinen Kudeaketaren Azterlana aurkeztu du (Udalak eskatuta).

2. TXOSTENA

Jon Argote Bengoetxea jaunak obra baimena eskatu du, Usurbilgo Kalezar auzoko Egiluzeaundi baserria birgaitzeko. Horretarako aurkeztu dituenak dira, eskaera orriarekin batean, Oinarrizko Proiektua (2018ko martxoaren 6an). Proiektuak barneratzen ditu: planoak, memoria eta aurrekontuaren aurrerapena. Guztiak arkitektoak izenpetuak eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe. Ondoren, garai bateko argazkia eta eskrituren kopia aurkeztu dira (2018ko ekainaren 20an). Gero, Oinarrizko Proiektu Bateratua eta eranskina aurkeztu ditu (2018ko abuztuaren 7an). Azken proiektu honek honakoak barneratzen ditu: planoak, memoria, aurrekontuaren aurrerapena eta eranskina. Guztiak arkitektoak izenpetuak eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe daude. Azkenik, Hondakinen Kudeaketaren Azterlana aurkeztu du (2018ko irailaren 12an).

Txosten honetan 2018ko Uztaileko data duen proiektua aztertuko da (2018ko abuztuaren 7an aurkeztu dena).

Egiluzeaundi baserria, Usurbilgo Kalezar auzoan dago, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren arabera *Nekazaritza eta Abeltzaintza berezi babesteko lurzoru ez-urbanizagarrian*. Egiluzeaundi baserria ez dago aipatu Testu Bateraginaren Hirigintzako Ondare katalogoan sartuta.


Aurkeztu den proiektuaren helburua da:

“En resumen se procede a una recuperación del volumen original, recuperando y consolidando la totalidad de los muros de carga de mampostería de piedra caliza existentes, y se reforma la totalidad del interior adaptándolo a las nuevas exigencias técnicas y constructivas; y a la nueva disposición de la vivienda en el interior del caserío.

El proyecto de reforma no altera las características fundamentales de la edificación, suponen una mejora de su estado actual y de las condiciones de uso de la misma.”

Bestalde, baserriaren proposatutako egoeraren ebaketa eta altzaeren justifikazioa jasotzen duen proiektuko eranskinean honakoa jasotzen da:

“El criterio mantenido para la nueva cubierta, ha sido el de disponer de una pendiente igual en los dos faldones de cubierta del 32% , la pendiente mínima siguiendo las condiciones del CTE , es del 30% para teja mixta y del 32 % para teja curva, sin mayores especificaciones.



Usurbilgo Udala

(...)

A nuestro juicio la solución adoptada garantiza el adecuado cumplimiento del CTE , cumple con la limitación de 7 metros de cota bajo alero, con los faldones de las cubierta con la misma pendiente, permite un uso ajustado en el frente del tolare (1,63 metros en el pasillo a 0,50 metros del muro), para la introducción de la manzana, en el recinto de la prensa, conservamos la cota disponible bajo solibo junto al recinto de la prensa ; y permite consolidar los muros existentes del cuerpo principal con un zuncho perimetral de hormigón armado. Todo ello en un contexto de reducción de las superficies construídas y de los volúmenes existentes en el Caserío Egiluzeaundi, así como eliminando los añadidos degradantes.”

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- **PROIEKTUAREN EDUKIA:** Eraikuntzaren Kode Teknikoak bere Lehen Ataleko 1go eranskinean Oinarrizko Proiektuentzako ezarritako gutxieneko edukia betetzen du aurkeztutako proiektuak.
- **BASERRIAREN OKUPAZIOA ETA TERRAZA/BALKOIA:** baserriek dagokienez hauen birgaitzea eta mantentzea aurreikusten da AASSTBeko 52. artikuluan:

“Lurzoru ez urbanizagarrian dauden baserrien birgaitzea eta beraien balioa agerian jartzea bermatzeko helburuarekin, hauen mantentze eta finkatzeari begira, beraien azpizatiketa, gehienez ere bi etxebizitza eraikin bakoitzeko, onartzen duten birgaitze edo eraberritzeak baimendu ahal izango dira, beti ere baserriak Jabego Erregistroan inskribatuta badaude eta ordenazioz kanpo deklaratuak ez badaude.”

Proiektuan baserriaren eranskinak eta garajea kentzea proposatzen da eta horren ordez jatorrizko balkoia zabaltzea eta terraza berri bat eraikitzea; hala, eraikinaren gaur egungo okupazioa 348,17 m²koa dela esaten da (228,40m² (gorputz nagusia) + 119,70m²(eranskinak eta garajea)) eta proposatutakoa, berriz, 255,44 m²koa (228,47m² (gorputz nagusia) + 26,97m²(terrazza+balkoia)).

Hauek dira gaur egungo egoeraren eta proposatutakoaren azalera eraikiak:

	GAUR EGUNGO AZALERA ERAIKIA	PROPOSATUTAKO AZALERA ERAIKIA
ERDISOTOA	285,67 m ²	165,97 m ²
BEHE SOLAIRUA	292,61 m ²	255,44 m ²
TEILATUAZPIA (azalera guztia kontatu da, altuera kontuan hartu gabe)	149,50 m ²	105,25 m ²
GUZTIRA	727,78 m ²	526,66 m ²

Eskrituren kopiaren arabera, baserriak 260 m²ko okupazioa du. Beraz, baserriaren jatorrizko azalera eraikiak eta okupazioa gainditzen ez direnez, proposamena onargarria da.



Usurbilgo Udala

- **ERAIKIN NAGUSIAREN ALTUERA:** Teilatuaren altuerari dagokionez, doiketa batzuk egitea proposatzen da teilatuaren bi isuriak EKTak eskatzen duen gutxieneko malda betetzeko eta baserriko jatorrizko dolareak altuera erabilgarri bat izaten jarrai dezan. Egokitzapen horiek gailurraren altuera 30zm igotzea eta alero azpiko altuerak doitzea dakarte. Bestalde, egurrezko egitura berriak ere sekzio handiagoak eskatzen ditu arautegia betetzeko. **Soluzio konstruktiboak eskatzen dituen doiketak direnez eta, oro har, jatorrizko baserriaren gorputz nagusiaren bolumentria mantentzen denez proposamena onargarria da.**

- **BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA:** Indarrean diren Usurbilgo Arau Subisidiarioen Testu Bateraginaren 55. artikuluan finkatu bezala, **bizigarritasun baldintzak bete behar dira; Exekuzio Proiektuan justifikatu egin beharko dira.**

- **EKT ETA BESTEAK:** Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikaziozko diren gainontzeko araudiak, hala nola, Tentsio Bajuko Instalazioen Erreglamendua eta Irisgarritasun Araudiak (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua).

- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.000 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.200 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua.


- **AZPIEGITURAK:** Zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.

- **EXEKUZIO PROIEKTUA:** Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus- onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da; Exekuzio Proiektu horrek Udalaren onespena jaso beharko du.

- **ZUINKETA AKTA:** udal aparejadorearekin TEILATUAREN ALTUERAREN ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.

- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

3. ONDORIOAK



Usurbilgo Udala

Egiluzeaundi baserria birgaitzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzekotan:

- 2018ko Uztailean Juan Eizmendi arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera gauzatu beharko dira obrak.
- Obrak hasi aurretik dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da. Bizigarritasun baldintzen justifikazioa ere barneratu beharko da bertan.
- Hondakinen kudeaketako araudiaren arabera aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik (1.200 €).
- Udal aparejadorearekin teiltuaren altueraren zuinketa akta izenpetu beharko da.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko irailaren 13an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko urriaren 2an ondoko txostena eman du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA


ESKAERA: Eraikuntza berriarentzat udal zerbitzuei lotuneen txostena
ESKATZAILEA: Hirigintza saila
KOKAPENA: Usurbil sakabanatuak 78 (Egiluzeaundi baserria)
ESP. ZENB: HZ.04/2018-0117

TXOSTENA

Usurbil sakabanatuak 78ko Egiluzeaundi baserri berriaren, Udal zerbitzuetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du hirigintza sailak.

Ur zikinak: ez dago ur zikinen sarera lotunerik.

Euri urak: ez da euri uren sarera lotunerik.



Usurbilgo Udala

Ur-hartunea: baserriko ur hatuneak hurrengoak beteko ditu:

1. Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarrizko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
2. Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
5. Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoak eraikiko da.
6. Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zigilaturiko hartuneko buletina aurkeztuko da.

2018ko urriaren 2an

Zerbitzu eta Mantenua saileko burua

Felix Aizpurua Arzallus

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JON ARGOTE BENGOETXEA jaunari, Kalezarko Egiluzeaundi baserria (Kalezar 78) eraberritzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

1. Elkargo ofizialak **ikus onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu** beharko da, bertan bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratuz.
2. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.000,00 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.200,00 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.200,00 €-ko fidantza Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2018-0117*" jarriaz



Usurbilgo Udala

kontzeptuan.

- Obrak hasteko, udal aparejadorearekin teiltuaren ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- JUAN EIZMENDI ARANALDE arkitektoak 2018ko uztailean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
- Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionez, udal aparejadoreak ezarritako baldintzak beteko dira.

Ur-hartunea: baserriko ur hatuneak hurrengoak beteko ditu:

1. Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoen adieraziko duten tokian.
 2. Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
 3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
 4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
 5. Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoak eraikiko dira.
 6. Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zigilaturiko hartuneko buletina aurkeztuko da.
- Uren isurketa indarrean dagoen arazketa Lege eta Araudiari lotetsiko zaio.
 - Fosa septika bat ezarriko da, ur zikinak isuri aurretik bertan jasoz. Fosa Septikoari dagokionean, etxe horretako bizilagunen eta beharren proportzioan eraikiko da.
 - OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
 - Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:



Usurbilgo Udala

- Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

6.- HAASETAKO A-91 (MUTIOZABAL) EREMUKO HEU 91.4 EXEKUZIO UNITATEAN ERAIKITAKO BI ETXEBIZITZETAKO ETXEARI (AGINAGA 20 A) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2015-0068

DOLORES ERRASTI BENGOTXEA andereak eta FELIX ARANGUREN GALARRAGA jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) eremuko HEU 91.4 exekuzio unitatean eraikitako bi etxebizitzako etxearen (Aginaga 20 A) lehen erabilera baimena eskatu dute.



Usurbilgo Udala

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 31ean, DOLORES ERRASTI BONGOETXEA andereari eta FELIX ARANGUREN GALARRAGA jaunari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) eremuko HEU 91.4 exekuzio unitatean bi etxebizitzako etxea (Aginaga 20 A) eraikitzeko udal baimena ematea ematea erabaki zien.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	412.560,00 €
Obra Amaiera partzialaren PEM:	412.560,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.350,00 € Fidantza (%120): 1.620,00 €.

LEHEN ERABILERA


Orain berriz, DOLORES ERRASTI BONGOETXEA andereak eta FELIX ARANGUREN GALARRAGA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) eremuko HEU 91.4 exekuzio unitatean eraikitako bi etxebizitzako etxearen (Aginaga 20 A) lehen erabilera baimena eskatzen dute.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, udal arkitektoak, Miren Dorleta Erasquin Alijostes andereak, 2018ko irailaren 26an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
LEHEN ERABILERA
A-91 MUTIOZABAL EREMUKO HEU 91,4, EXEKUZIO UNITATEAN BI
ETXEBIZITZAKO ERAIKINA EGITEKO BAIMEN ESKAERAREN LEHEN
ERABILERARI TXOSTENA

KOKAPENA:A-91 MUTIOZABAL. Aginaga auzoa. Usurbil.
ESKAERA DATA: 2018ko ekainaren 12an.
ESKATZAILEA: Felix Aranguren Galarraga eta Dolores Errasti
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2015-0068
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 412.560 euro



Usurbilgo Udala

OBRA AMAIERAREN PEM: 412.560 euro
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.350euro
Fidantza (%120): 1.620 euro

AURREKARIAK

- 2016eko otsailaren 11ean interesdunek A-91 Mutiozabal eremuko HEU 91.4. exekuzio unitatean bi etxebizitzako eraikina egiteko baimena eskatu dute, eta dagokion oinarritzko proiektua aurkeztu.
- 2015eko martxoaren 12an udal arkitektoaren txostena.
- 2015eko martxoaren 24ean udal aparejadorearen txostena.
- 2015eko martxoaren 31ean Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia eraikitze baimena emanez.
- 2015eko ekainaren 29an interesdunak Telekomunikazio Proiektua eta Exekuzio proiektua aurkeztu ditu.
- 2015eko irailaren 3an udal arkitektoaren txostena.
- 2015eko irailaren 15ean udal zerbitzu eta mantenua saileko buruaren txostena.
- 2015eko urriaren 5ean ingurumen teknikariaren txostena.
- 2015eko urriaren 22an zuinketa aktaren izenpetze eskaera.
- 2015eko urriaren 25ean zuinketa planoaren zinatzea.
- 2018ko ekainaren 12an obra amaieraren aurkezpena, lehen erabileraren eskatzearekin batera.
- 2018ko irailaren 4ean behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.
- 2018ko irailaren 4ean behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du.
- 2018ko irailaren 11ean behean izenpetzen duen teknikariak txostena egin du.
- 2018ko irailaren 25ean dokumentazio osagarria aurkeztu da.
- 2018ko irailaren 26an behean izenpetzen duen teknikariak eta udal aparejadoreak bertaratzea egin dute.

Erlazionatutako espedientea: HZ.01/2014-0013

TXOSTENA

Felix Aranguren Galarraga jaunak eta Dolores Errasti Bengoetxea andereak, A-91 Mutiozabal eremuko HEU 91.4 unitatean bi familiaritzako etxebizitzako eraikinaren obra amaierako dokumentazio osagarria aurkeztu dute. Eskaera orriarekin batera, honakoak aurkeztu dituzte: ondasun higiezinaren gaineko zerga (U-4), instalakuntzen buletinak (ur edangarriaren ziurtagiria, instalazio termikoaren ziurtagiria eta behe tentsioko instalakuntza elektrikoaren ziurtagiria) eta eskrituren zirriborroa.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA:



Usurbilgo Udala

Eskatutako dokumentazio osagarri guztia aurkeztu dute.

- HONDAKINEN KUDEAKETAREN FIDANTZA: hondakinen kudeaketaren amaiera txostena aurkeztu dute baina ez da fidantzaren jartzearen dokumentaziorik aurkitu beraz ez da bueltatu behar.
- P.E.M.: Exekuzio proiektuko PEM-a 412.560 eurokoa da, obra amaierakoaren berdina.
- OBRA AMAIERAKO PLANOAK: Obra amaierako planoak baimendutako proiektuarekin alderatuta irizten da orokorrean ez dela aldaketa nabarmentik eman (leiho batzuren aldaketa, patioaren itxiduraren aldaketa...). Falta zen eskaileraren bereizketa dagoeneko egin dute.
- ZERBITZUETAKO TXOSTENA: Zerbitzuetako Siletik eskatutako baldintzen inguruan Zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da.
- ERAIKINAREN ALTUERA: Udal aparejadoreak 2018ko irailaren 26an egindako bertaratzean altura zuinketa egin du.
- BERTARATZEA: Behean izenpetzen duen teknikariak egindako bertaratzean ikusi da aurreko bertaratzean falta ziren emergentzi argiak eta eskaileraren bereizketak eginak daudela.

ONDORIOA

Beraz, goian esandakoari jarraiki, lehen erabileraren ALDEKO txostena idazten da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2018ko irailaren 26an
Izta.: Miren Dorleta Erausquin Alijostes
UDAL ARKITEKTOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko urriaren 2an ondoko txostena eman du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKAERA: Eraikuntza berriarentzat udal zerbitzuei lotuneen



Usurbilgo Udala

amaierako txostena
ESKATZAILEA: Hirigintza saila
KOKAPENA: Aginaga 20A (A-91.4 Mutiozabal)
ESP. ZENB: HZ.04/2015-0068

TXOSTENA

Aginagako A-91 Mutiozabal eremuko HEU 91.4 exekuzio unitateko etxebizitza berriaren, Udal zerbitzuetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du hirigintza sailak.

Ur zikinak: ez dago ur zikinen sarera lotunerik

Euri urak: ez dago euri uren sarera lotunerik

Ur-hartunea: etxearen ur hartuneak amaitzeko hurrengo osatu behar da:

- Ur kontagailuaren armairuan atea jarri behar da.

2018ko urriaren 2an

Zerbitzu eta Mantenua saileko burua

Felix Aizpurua Arzallus

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A


LEHENDABIZI: DOLORES ERRASTI BENGOETXEA andereak eta FELIX ARANGUREN GALARRAGA jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-91 (Mutiozabal) eremuko HEU 91.4 exekuzio unitatean eraikitako bi etxebizitzako etxeari (Aginaga 20 A) lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin:

- Ur kontagailuaren armairuan atea jarri behar da.

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria eta Kontuhartzaileari ematea.

7.- 2018KO KULTURAKO HAINBAT DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Noaua kultur elkarte (KE.01/2018-0064)
Orbeldi Dantza Taldea (KE.01/2018-0068)



Usurbilgo Udala

IKUSIRIK

2018ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, 2018eko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, elkarte hauek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza justifikatu dute.

Noaua Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	2. zatia Bideratu beharrekoa
50. Inauteriak 2018	2.178,95 €	1.634,21 €	544,74 €
51. Film laburren zirkuitua	515,85 €	386,89 €	128,96 €
53. Plis Plas Txalo eta jolas	984,68 €	738,51 €	246,17 €
		Guztira	919,87 €

Orbeldi Dantza Taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a (bideratua dagoena)	2. zatia Bideratu beharrekoa
63. Auzoetako dantza emanaldia	950,00 €	712,50 €	237,50 €
65. Atzerriko dantza taldeen emanaldia	1.900,00 €	1.425,00 €	475,00 €
		Guztira	712,50 €

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2018kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2018/02/12).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18).



Usurbilgo Udala

- Kontu hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintzak	Ordainketa
Noaua kultur elkarte	50,51,53	919,87 €
Orbeldi Dantza taldea	63,65	712,50 €

Bigarrena: Kultura Alorreko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03 (A 2/2018)

Hirugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:25etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.